

2022ko OTSAILAREN 16ko OSOKO BILKURAKO AKTA.

Tokia: Berako Herriko Etxea.
Eguna: 2022-02-16.
Hasiara ordua: 19:30.
Bilkura mota: ohikoa, 1. deia.

BERTARATUAK:

EH BILDU

Estibaliz Pinacho Olaciregui
José Esteban Aguirre Zubieta
Maialen Chantre Irazoki
Patxi Castillo Graciarena

HERRIRAKO

José Antonio Oyarzabal Iribas
Raquel Quiroga Tapia
Nahuel Maximiliano Ibarburi Lompre

EZ EGOTE JUSTIFIKATUAK:

Germán Castillo Lazcanotegui

ALDEZ AURRETIK JUSTIFIKATU GABEKO EZ EGOTEAK:

Julen Errandonea Martin

ALKATEA (Bilkurako buru):

Aitor Elexpuru Egaña

IDAZKARIA: Miguel José Belarra Tellechea, ekintzaren akta jasotzen du.

EZTABAIDATUTAKO GAIAK (behar bezala egindako deialdiaren Gai Zerrendan sartu zirenak):

1. AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONARPENA.

Alkateak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko bilkurako aktari (2022/01/19). Inork ez du azalpenik egin eta **ahoko batez** onartzen da akta.

Raquel Quiroga sartu da bilerara.

Maialen Chantre sartu da bilerara.

2. BIKOTE EGONKORREN ERREGISTROAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA INDARGABETZEA. HASIERAKO ONESPENA.

Ikusirik:

- Ezkondu gabeko bikote egonkorren erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua

arautzen dituen Ordenantza indargabetzeko espedientea. Arrazoa da 27/2021 Foru Dekretuaren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarra sortzearen ondorioz, balioa galdu duela.

- Idazkariak 2022ko otsailaren 14an egindako txostena.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325. eta 326. artikuluek eta 39/2015 Legeko 133.2 artikulua xedatzen dutenarekin bat eginik,

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Hasiera batez onestea Ezkondu gabeko bikote egonkorren erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen Ordenantzaren indargabetzea.

2. Espedientea jendaurrean jartzea 30 egunez, aldez aurretik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki oholean iragarkia jarrita, herritarrek eta bidezko interesa dutenek hura aztertu eta erreklamazioak, eragozpenak eta oharrak egin ahal ditzaten.

3. Erabaki hau udal webgunean argitaratzea 30 egunez, ukitutako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona eta entitate batzuek egin ditzaketan ekarpen gehigarriak jasotzeko.

4. Ohartaraztea ez bada erreklamazio, kexa edo oharrik aurkezten, hasierako onespén hau behin betikoa bilakatuko dela eta indargabetzea NAO-n argitaratuko dela.

3. 2022/1 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: APARTEKO KREDITUA (AGERRAKO EURI-UREN SAREA. KALBARIOKO ERREKA). HASIERAKO ONESPENA.

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Udalak zenbait larrialdi lan egin behar izan dituela Agerrako euri-uren sarean eta Kalbario errekan 2021eko abenduko eta 2022ko urtarrileko eurite handiek eragindako kalteak konpontzeko.

- Kontu-hartzaileak 2022ko otsailaren 16an egindako txostenak adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, ezohiko kreditua, gastu-partida hauetarako:

1-1601-21301. Agerrako euri-uren sarea mantentzea. 15.000,00 €.

1-1601-21302. Kalbarioko erreka mantentzea. 15.000,00 €.

Zenbatekoa, guztira: 30.000,00 €.

- Txosten horretan proposatzen dela partida honen kreditua beheratuta finantzatzea:

1-1690-60900. Autokarabanak. 30.000,00 €.

Zenbatekoa, guztira: 30.000,00 €.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Hasierako onespena ematea 2022/1 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (aparteko kreditua).
2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.
3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespeneren erabakia behin betiko onetsizat joko dela.
4. Akordio hau berehala izango da betearazlea, zorigaitz publikoaren ondorioei aurre egiteko hartu delako (2/1995 Foru Legearen 214.3 artikulua).

4. NA-10505 TOKIKO EHIZA BARRUTIA ERATZEA.

Ikusirik Nafarroako Gobernuko Ehiza Atalak jakinarazi duela ehiza barrutiaren balio epea eta aprobetxamenduaren esleipena 2021/2022 ehiza denboraldiaren bukaeran amaitzen direla.

Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko 17/2005 Foru Legean eta hura garatzeko Erregelamendua onesten duen 48/2007 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritz,

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari eskatzea ehiza barruti publikokoa eratzea, Berako lurak barne hartuko dituen.
2. Lursailen lagapena isilbidez egingo da, ehiza barrutia eratzeke proiektuaren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta ohiko publizitate bideetan argitaratzearen bidez.
3. Ehiza barruti horren iraupena 10 ehiza denboralditan ezartzea, azkena 2031/2032 ehiza denboraldia izango delarik.
4. Esleipena Ehiztarien Tokiko Elkarteari zuzenean esleitzeko prozeduraren bidez egingo da.
5. Ehiza aprobetxamendua esleitzeko baldintza agiriaren zirriborroa onartzea. Agiri hori espedientean erantsi da.
6. Bigarren puntuan aipatzen den iragarkia argitaratzea.

5. BANDOAK ETA ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauen jakinaren gainean geratu dira:

- Bandoak: B2/2022 zenbakiduna.

- Ebazpenak: 6/2022 zenbakiko Ebazpenetik (2022/01/18) 23/2022 zenbakiko Ebazpenera arte (2022/02/08).

6. ESKAERAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEEN KONTROLA.

Ez dira izan.

Beste aztergairik izan gabe, 20:05ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

O.E. ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña.

IDAZKARIA,
Miguel J. Belarra Tellechea.